



## POSTERRAK KUDEATZEKO ARAUDIA

### A. ARAU OROKORRAK

1. Aldizkarietan edo beste biltzar eta jardunaldi batzuetako dokumentazioan argitaratu ez diren **jatorrizko** lanak onartuko dira, baldin eta **2015eko irailaren 15a baino lehen** jasotzen baditugu.
2. Poster bakoitzak **gehienez 6 egile** izango ditu, egile nagusia edo aurkezten duen pertsona barne hartuta. Nabarmendu letra lodiz aurkezlearen izena.
3. Posterraren aurkezleak jardunaldietan izena eman beharko du irailaren 30a baino lehen.
4. Egileen izena honela adierazi beharko da: bi abizenak, izenaren aurretik. Egileen izenak adierazteko orden bera agertuko da jardunaldietan emango diren posterren ziurtagirietan eta lanen argitalpenetan.
5. Idazkaritza zientifikoari posterrei buruzko azalpen laburra bidali beharko zaio, haiek azter ditzan.
6. Egileei posta elektronikoz jakinaraziko zaie posterrak onartu edo ukatu dituzten, eta onartutakoei, zer egunetan eta ordutan aurkeztuko duten ere adieraziko zaie. Mezu horretan edo aurrerago jasoko diren beste batzuetan, aurkezpenaren arauak eta plangintzaren xehetasunak bidaliko dira.
7. Poster onenari saria emango zaio. Baliteke puntuazio handiena lortzen duten posterrak AENen aldizkarietan argitaratzea.
8. Posterren laburpenaren bidalketa eginez gero, irizpide hauek guztiak onartuko dira. Batzorde Zientifikoaren ebaluazioaren emaitza apelaezina izango da. Adierazitako arauak betetzen ez dituzten posterrak eta laburpenak baztertu egingo dira.
9. Mezu guztiak web orriaren edo posta elektronikoaren bidez bidaliko dira. Horregatik, posterra aurkeztuko edota defendatuko duen pertsonaren **helbide elektronikoa eta telefono zenbakia** argi eta garbi adierazi beharko dira.
10. Pertsonako gehieneko poster kopurua **bi** izango da.

### B. LANEN EDUKIA ETA FORMATUA

1. Lanen laburpena bidali beharko da batzordeak aztertu eta onartu dezan. Gehienez 350 hitz izango ditu, eta hurrengo egitura honen arabera egongo da idatzita:
  - **EGILEA(K)**: Aurkezpenaren arduraduna (defendatuko duen pertsona). Hona hemen izenak idazteko formatua: bi abizen, izena (adib.: González Atxa, Xabier). Ez da titulu profesionalik adieraziko (Dr., Irak., etab.).
  - **IZENBURUA**: laburra izango da, gehienez 2 lerrokoa. Esaldi moduan idatzita (ez dira letra larriz idatzitakoak onartuko), lodian eta laburdurarik gabe.
  - **EDUKIA**: Hona hemen **lanen** edukiak: sarrera, helburuak, metodologia, ondorioak eta erreferentzia bibliogagikoak (gehinez 5).



2. Laburpena mezu baten eranskinean bidali beharko da **Microsoft Word formatuan, 12 puntuko Times New Roman letra motarekin idatzita eta lerro arteko tarteak 1,5ekoa izango da** (posta elektronikoz bidaliz gero).
3. Atal bakoitza **letra lodiz** adieraziko da, eta bi puntuz amaituko da (:). Testua ondoren idatziko da.
4. Adierazi **espezialitatea, egungo kargua, lantokia eta udalerrria**. Egile guztiena bera ez bada, honela adierazi beharko da:  
(1) García Zuazua, Begoña; (2) Flores Serrano, N.; (3) Aguilera Esteban, L.  
(1) Psikologia Klinikoko aditua. Carlos Haya ospitalea. Malaga; (2 eta 3) Psikiatriako barruko mediku egoiliarra. Virgen de la Victoria unibertsitate-ospitalea. Malaga.
5. Lana bidali aurretik, kontu handiz berrikusi behar da. Izan ere, lanak aztertzeko epea amaitu ondoren, ezingo dira egileen izenak edo zerrendako ordena aldatu.

### C. BIDALKETA PROZEDURA

- **Posta elektronikoz**
  - Lanaren laburpena Idazkaritza Teknikoari bidali beharko zaio mezu elektroniko baten eranskin moduan, MS Word dokumentu batean, B atalean adierazitako formatuarekin:  
[jornadashistoriaaen@gmail.com](mailto:jornadashistoriaaen@gmail.com) / 645 522 815 / 845. posta-kutxa, 20080 Donostia.
  - Hurrengo informazio hau mezu elektronikoan adierazi beharko da (ez, erantsitako dokumentuan):
    - **IZENBURUA**
    - **Egile nagusia**
    - **NAN**
    - **Gainerako egileak**
    - **Lantokia**
    - **Helbidea**
    - **Telefonoa**
    - **Helbide elektronikoa**

Web orriaren bidezko bidalketekin lotutako zalantzarik izanez gero, galdetu Idazkaritza Teknikoari posta elektronikoz, eta idatzi «AENen Historiako X. Jardunaldien komunikazioko informazioa» gaia.

**Idazkaritzak laburpena jaso duela jakinaraziko dio bidaltzaileari, eta erreferentzia zenbaki bat emango dio.**



#### **D. ONARTUTAKO POSTERREN ERAKUSKETA DIGITALA**

Jardunaldiek iraun bitartean, onartutako posterrak San Telmo Museoko posterren gelan egongo dira ikusgai.

*Posterrek Power Point formatua ere izan ahalko dute, digitalki aurkezteko. Haien neurria ezingo da 10 megabytetik gorakoa izan (modalitate hau ez da behin betikoa izango ekipo teknikoaren presentzia baieztatu arte).*